

Gipuzkoako Foru Aldundiaren iraunkortasun politika

Gipuzkoako Foru Aldundia, Lurralde Historikoko gobernu eta administrazio organo den aldetik bere eskumeneko gaietan, jakitun da ingurumenaren babesa garapen ekonomiko orekatuarekin bateratu behar denaz, eta bere zerbitzuen **ingurumen inpaktua minimizatze**ko lanean dihardu, horrela gizarte guztiaren eredu delarik **Gipuzkoan garapen iraunkoragoaren sustapenean**.

Horretarako, ingurumena gehiago babestea helburu duten **ekimenak garatzeko konpromisoa hartzen du**, baliabideak aurrezte eta horien erabilera arrazionalizatzea, energia berriztagarriak sustatzea eta hondakinak eta igorpen kutsatzaileen kopurua murriztea bezalako irizpideen bitartez.

Iraunkortasunarekiko konpromiso hori **Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzetan ingurumen kudeaketako sistemak ezarri, mantendu eta hobetzeak babestuko dute**, honako helburu hauekin:

- **Eskaintako zerbitzuen ingurumen inpaktua minimizatzea.**
- **Ingurumen alorrean aplikagarriak diren legezko eskakizunak betetzea.**

Ingurumen kudeaketa honako hobekuntza ziklo honetan oinarrituko da:

Planifikatu

Ingurumen egoera
ebalatu
Ingurumen helburuak
ezarri

Egiaztatu eta doitu

Helburuak betetzen direla **egiaztatu**
Ingurumen hobekuntza
berrikusi



Eqin

Lege eskakizunak
identifikatu eta bete
Gure ingurumen
aspektuak **kudeatu**

Ziklo horrekin, honako hau lortuko dugu:
**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO ZENTROETAKO
INGURUMEN KUDEAKETA ETENGABE HOBETZEA**

Diputatuen Kontseiluak, 2009ko ekainaren 9ko bileran onartua



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa